



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Neolitoko uharte artifizialak

Hebrida uharteak (Eskozia), duela 5.600 urte. Loch Arnish, Loch Bhorgastail, Loch Langabhat eta beste hainbat aintziretan, gizakiek irlatxo artifizialak eraiki zituzten, ahalegin izugarria eginez. Loch Bhorgastaileko uharte artifizialera iristeko harbide bat ere egin zuten.

Irla hauei “crannog” esaten zaie; hitz gaelikoaren etimologia ez dago garbi, baina egurrari lotuta dago, adituen arabera. Aspalditik jakina zen crannogak ez direla uharte naturalak, gizakiak eraikitako egiturak direla. Baina orain arte uste zuten XVIII. mendera arte erabili ziren irla horiek K.a. 800 urte inguruan hasi zirela eraikitzen, Burdin Aroan, alegia. 2016an Readingeko unibertsitateko Duncan Garrow eta Southamptoneko unibertsitateko Fraser Sturt arkeologoek irla artifizial horiek xeheago aztertzea erabaki zuten, atarian aipatutako hiru lakuetatik hasita. Emaizak duela aste batzuk eman dituzte argitara *Antiquity* aldizkarian: Karbono-14 bidez egin-dako datazioen arabera, egitura horiek K.a. 3640 eta 3360 urteen artean eraiki zituzten, pentsatu baino askoz lehenago. Emaizta horiek %95 inguruko fidagarritasuna dute. Irletan eta inguruan aztertutako beste hainbat laginek ere datazioak baieztatzen dituzte. Baina arkeologoek ez dute egitura neolitikorik aurkitu crannogetan eta indusketa gehiago egin beharko direla diote.



HEBRIDETAKO LOCH BHORGASTAILEKO UHARTE ARTIFIZIALA NEOLITOAN ERAIKI ZUTELA JAKINARAZI DA BERRIKI. IRLA ERAIKITZEAZ GAIN, HARRIZKO BIDE BAT ERE EGIN ZUTEN BERTARA IRISTEKO.

Hala ere, crannogen jatorri neolitikoa-ren frogak lehentxeago azaleratu ziren, 2012an, milaka urtetan urpean egon eta gero. Urte hartan, Chris Murray urpekarriak Neolito Aroko oso ondo kontserbatutako zeramikazko piezak aurkitu zituen irlatxoan inguruan. Aurkitutako pieza kopuruak -22.000 zati aurkitu dituzte orain arte- eta ondo kontserbatutako zati handiek adierazten dute zeramikazko ontziak propio bota zituztela uretara, helburu erritualengatik ziurrenik.

Zalantzarik ez dago gizaki haientzat garrantzi handia zeukatela, ahalegin izugarria egin baitzuten 10 eta 30 metro bitarteko irlak pixkanaka eraikitzeko, Ar-

keologoek uste dute trantsizio erritualak (bizitza eta heriotzaren artekoak, haurtzaroaren eta helduaroaren artekoak...) egiteko erabiltzen zituztela. Baina oraindik goiz omen da hipotesiak baieztatzeko, garai bereko halako jardueren berri gutxi baitago; Stonehenge bera crannogak baino mila urte inguru berriagoa da.

Gainera, litekeena da datazio zaharragoak ere lortzea, orain arte Eskoziako crannogen %10 besterik ez baitituzte datatu. Guztira, Neolitoko gizakiek 570 crannog eraiki zituzten egungo Eskozian, eta beste ehunka batzuk Irlandan, Dubaiko uharte artifizial “berritzaileak” baino milaka urte lehenago. ●

Ponpeia, 17 urte lehenago

K.o. 62. urtean, Ponpeia eta Herkulano inguruetan Richter eskalan 5 eta 6.1 arteko indarra zuen lurrikara gertatu zen. Ondorioak Napolesen ere nozitu zituzten, baina bi hiri horiek izan ziren hondamen handiena jasan zutenak, Luzio Zezilio Jokundoren etxean aurkitutako behe-erliebe batek adierazten duenez. 17 urte geroago, Vesubiok eztanda egin zuenean, berreraikitze lan ia guztiak

amaituta zeuden, baina eraikin batzuk oraindik berritze bidean zeuden. Gaur egun, lurrikarak urte batzuk geroago etorriko zen erupzioa aurreikusten lagunduko luke, baina garai hartan ez zituzten mugimendu sismikoak ulertzen. Seneka Gazteak *Naturales quaestiones* lanaren seigarren liburukian 62ko lurrikara deskribatu zuenean, airearen mugimenduak eragin zuela azaldu zuen. ●

